

Koloneko minbiziaren proba egiteko **12 arrazoi.**  
**Test bat aski izan daiteke zure bizia salbartzeko.**  
**HAUTA90**

**Carlos, 55 urte, taxi-gidaria.**

*«Test hori erraz-erraza da, neronek egin nuen. Oso proba eroso da. Handik egun batzuetara jaso nituen emaitzak, dena ongi».*

**Test bat aski izan daiteke zure bizia salbartzeko.**

**Maite, 52 urte, administraria.**

*«Nik argi nuen proba egin behar nuela, hipokondriako samarra naiz eta. Hauta90 gutunaren zain nengoan, eta ikusirik ez zela iristen, 848 42 34 98 telefonora deitu nuen. Hil honetan egingen dut proba».*

**Auzokideek gonbidapena jasotzen badute eta zuri ez bazaizu iristen, deitu ahantzi gabe.**

**Manuela, 64 urte, Comedias kaleko bizilaguna.**

*«Gizonari behin baino gehiagotan esan nion proba egiteko, horrelakoetan kostatzen zaiolako, baina ni burugogorra naiz, bai horixe. Tumore bat harrapatu zioten, garaiz, zorionez. Eta orain Vicente oso ongi dago».*

**Garaiz detektatuz gero, koloneko minbiziaren dutenen %90etik gora sendatzen dira.**

**Sergio, 21 urte, ikaslea.**

*«Gure aita beti aitzakiekin proba ez egiteko. Esan nionean Nafarroan minbizi ohikoena kolonekoa dela, egitera joan zen. Orain lasaiago gaude etxeko guztiak».*

**Koloneko minbiziaren ohikoena. Nafarroan, urtero, 300 bat kasu diagnostikatzen dira gizonen artean eta 200 emakumezkoen artean.**

**Txema, 50 urte, abokatua.**

*«Duela 3 hilabete minbiziaren proba egin zidaten. Ez nuen sekula pentsatuko gertatuko zitzaidanik, gure familiako inork ez baitu izan, nik dakidala. Proba egitea erabaki nuen, eskerrak! Tumore lokalizatu bat harrapatu zidaten, tratamendu arin samarra hartu nuen eta orain primeran nago».*

**Koloneko minbiziaren kasu gehienetan ez dago aurrekaririk familian.**

**Sergio, 58 urte, dendaria Arrotxapean.**

*«Txemari minbiziaren proba egin zidate berriki. Ez zuen sintomarik, baina tumorea hor zegoen.*

*Probak positibo eman zuen, eta handik gutxira kolonoskopia egin zioten, eta horrekin berretsi zuten tumorea zuela.*

*Nik berehala egingen dut proba, gutuna jaso orduko. Nik ere Hauta90 aukeratu dut».*

**Tumoreak denbora luzean garatzen dira inolako sintomarik eragin gabe.**

**André, 59 urte, ile-apaintzailea.**

«Duela egun gutxi kolonoskopia egin zidaten, ikusteko zein zen arrazoia testak positibo emateko, kaketan odola zegoelako. Jainkoari eskerrak, emaitza negatiboa izan da oraingoan.

Polipo bat kendu didate, baina ez da hain larria. Baina auzoko bati positiboa eman zion, eta tumorea harrapatu diote».

**Testa positiboa ateratzen denean, kasuen erdietan baino gehiagotan emaitza normala izaten da, edo garrantzi handirik gabeko patologia bat.**

**Miriam, 50 urte, etxeakoandrea.**

«Bularreko minbiziaren prebentziorako programatik deitzen didatenean mamografia egitera joateko, ez dut huts egiten; koloneko proba egiteko gonbidapena jaso nuenean, ordea, ez nuen batere gogorik eta ez nuen egin. Gaur jakin dut emakume gehiago hiltzen direla koloneko minbiziaren ondorioz bularreko minbiziagatik baino. Deitu behar dut, proba egiteko kit-a bidal diezadatela eskatzeko».

**Koloneko minbizia da ohikoena, eta emakumeen kasuan bularrekoak baino hildako gehiago eragiten ditu**

**Gorka, 62 urte, harakina.**

«Ni oso lanpeturik ibiltzen naiz eta ez dut betarik horrelakorik egiteko. Andreen kontuak dira horiek, mamografiak bezala. Gainera, ni ederki nago, ez dut sintomarik bat ere. Zergatik egin behar dut, bada, proba hori?»

**Koloneko minbizia gehiago agertzen da gizonezkoengan emakumeengan baino.**

**María, 48 urte, sendagilea.**

«Gaur egun koloneko minbizia ez da lehen bezala. Tumoreak goiz detektatzen dira, tratamendua ez da hain gogorra eta gaixoen bizitza luzeagoa eta askoz hobea da. Merezi du proba egitea. Nik egina dut eta nire gaixo guztiei gomendatzen diet egin dezatela».

**Ikerketa zientifikoek frogatu dutenez, kaketan odola atzemateko testari esker tumore mota honen intzidentzia eta heriotza arriskua nabarmen jaisten ari dira.**

**Basilio, 63 urte, tuterarra.**

«Berriz jaso dut proba egiteko gonbidapena. Duela bi urte inguru ere egin nuen, eta negatiboa atera zen, baina lagun batzuei minbizia harrapatu zieten. Tomas, adibidez, nire auzokidea, horietako bat da. Zorionez garaiz harrapatu zioten, eta primeran dago. Muserako bikote onena gara, eta luzerako».

**Koloneko minbizia ohikoena da, baina garaiz detektatuz gero, sendatu egin daiteke.**

**Carla, 50 urte, enpresaburua.**

«Garaiz detektatzeko programatik gonbidapena bidali zidatenean ezetz esan, eta proba egin gabe utzi banu, tumoreak aurrera eginen zukeen eta, sintomak agertzerako, zabalduago egonen zatekeen eta pronostiko okerragoarekin. Hauta90»

**Garaiz detektatuz gero, koloneko minbizia dutenen %90etik gora sendatzen dira.**